

## **BALIO PROPOSAMENA:**

Lentillen balioa jeistea da gure helburu nagusia, horrekin batera lentillak efizienteagoak izatea ere lortu nahi dugu.

Gaur egun, lentillak erostearen arazo nagusia, gure ustez, likidoa da, izan ere, azken honek prezioa igotzeaz gain, nahiko lan astuna eragiten du jartzerako garaian. Gure iritziz, hau da arazo nagusia, eta gure asmakizun berriarekin konpontzen duguna, izan ere, likido gabeko lentillekin garantia segurua bermatzen dugu, gure asmoa lentilek bizitza guztirako irautea delako.

Uste dugu, benetan pizgarri ona jarri dugula, eta jendeak benetan eskertuko duela, izan ere, gizarte honetan dena azkarrago eta errazago izatea nahi dugu, eta gure asmakizun berri honekin hau bikain lortzen dugu. Bezeroa gure produktua erosteko prest egongo dela pentsatzen dugu, benetan produktu berritzailea delako, gizarteak aldatu dezakeena eta ekonomikoki ondo ateratzen dena.